ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

ESP.	**2020IPLE0001**
ATALA.	**IDAZKARITZA**
GAIA	**ALBIZTURKO UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA**

2020-02-04ko UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA

Albizturren, 2020ko otsailaren 4ean, arratsaldeko 20:00tan, udaletxeko udalbatza-aretoan, Udaleko ez-ohiko batzarra egin da, Alkate Iñaki Orbegozo Arrospide jauna duela.

BERTARATUAK:

- Iñaki Orbegozo Arrospide
- Alazne Urkizu Galarraga
- Aingeru Galarraga Barandiaran
- Aitziber Orbegozo Arrospide
- Larraitz Ezeiza Artola
- Mikel Galarza Arrue

BERTARATU EZ DIRENAK:

- Unai Dorronsoro Olarra

Udaleko idazkari kontu-hartzailea:

- Oihan Ostolaza Arruabarrena

AZTERGAIAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA
2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA
3. EGURTOKIEN ORDENANTZA
4. KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZKO KREDITU ALDAKETAREN 2019-KALD-0000005-00 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSAMENA
5. EUDEL-EK PROPOSATURIKO SOLDATEN %2KO IGOERA
6. KONTRATAZIO ZENTRALA: AUDITORETZA ENERGETIKOAK
7. AZAROLA GOIKOAKO BIDEAREN IZAERA ARGITZEKO PROZEDURA: “ACCIÓN INVESTIGADORA DEL CAMINO”
8. GALDERA ERREGUAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA

2019-12-26ko akta aho batez onartu da.

2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

2020ko 1 eta 9 bitarteko dekretuen berri eman da.

3. EGURTOKIEN ORDENANTZA

2019ko irailak 24ko Udaleko Ohiko Bilkuran Albizturko Udalerrian egurtoki eta portxeen eraikuntza arautzeko ordenantzaren behin betiko onarpena burutu zen.

Baina indarrean sartu zenetik orain arte izan dugun esperientziak erakusten du ez dela ondo egokitzen Albizturko herritarrek dituzten beharretara, eta bertan jasotako baldintza batzuk zurrunegiak direla.

Hori dela eta arkitektoari ordenantzaren testuan hobekuntza batzuk egiteko eskatu diogu, eta Udalbatzak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Albizturko udalerrian egurtoki eta portxeen eraikuntza arautzeko ordenantzan proposaturiko aldaketei hasierako onarpena ematea.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean uztea 30 lanegunez, egin nahi diren iradokizunak aurkez daitezen. Jendaurreko informazio izapide hori jakitera emango da iragarkia udaletxeko iragarki taulan, Udalaren web orrian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta.

Hirugarrena.- Alegaziorik aurkeztu ezean, Albizturko udalerrian egurtoki eta portxeen eraikuntza arautzeko ordenantza behin betikoz onartuta dagoela ulertuko da, eta ez da berariazko akordiorik hartu beharrik izango; nolanahi ere, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da testu osoa; eta baldin eta alegaziorik balego, alegazioak Udal Osoko Bilkuran ebatziko dira.

4. KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZKO KREDITU ALDAKETAREN 2019-KALD-0000005-00 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSAMENA

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Idazkari Kontu-hartzaileak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, bozketa egin eta gero, legezko gehiengoz, honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
6	INBERTSIO ERREALAK	20.835,45
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		**20.835,45**

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	20.835,45
GUZTIRA		**20.835,45**

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

5. EUDEL-EK PROPOSATURIKO SOLDATEN %2KO IGOERA

2020ko urtarrilaren 22an, ***2/2020 Errege Lege-dekretua, urtarrilaren 21ekoa,*** argitaratu da Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE), ***sektore publikoaren esparruko ordainsariei buruzko premiazko neurriak hartzekoa***.

Zehatz-mehatz, hauxe xedatzen du **2/2020 Errege Lege-dekretuak 3.Bi artikuluan**:

Bi. 2020an, sektore publikoaren zerbitzura diharduten langileen ordainsariak ezin izango dira gehitu 2019ko abenduaren 31n indarrean zirenak baino ehuneko bi baino gehiago, homogeneotasunaren arabera bi aldietarako, langileei dagokienez nahiz haien antzinatasunari begira.

Aurrekoa kontuan hartuta, 2/2020 Errege Lege-dekretua indarrean sartu ondoren, eta 2018ko eta 2019ko ekitaldietako ordainsarien gehikuntzei dagokienez EUDELek egin izan duenari jarraiki, Euskadiko udalei honako gomendio hau egitea egoki dela deritzo EUDELek, izan daitezkeen interpretazioak argitzen laguntzeko:

3.Bi artikuluko lehen paragrafoan adierazten denari dagokionez, legeak baimendutako maximoa gehitzea langileen ordainsaria, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginkortasunarekin; hau da, 2019ko abenduaren 31n indarrean zirenekiko **%2**, homogeneotasunaren arabera bi aldietarako, langileei dagokienez nahiz haien antzinatasunari begira.

Gaia aztertu ondoren, osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Udal langile eta funtzionarioen ordainsariak 2019ko abenduaren 31n zeuden ordinsariekiko % 2 igotzea.

6. KONTRATAZIO ZENTRALA: AUDITORETZA ENERGETIKOAK

Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak, eraikinen auditoretza eta ziurtapen energetikoak egiteko kontratazio espediente berri bat irekitzeko asmoa du eta Albizturkoko Udalari ere atxikitzeko gonbitea egin zaio.

Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Eraikinen auditoretza eta ziurtapen energetikoak egiteko kontratazio espedienteari atxikitzea.

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Kontratazioaren Zentralari erabakiaren berri eman eta beharrezko dokumentazioa osatzea.

7. AZAROLA GOIKOAKO BIDEAREN IZAERA ARGITZEKO PROZEDURA: "ACCIÓN INVESTIGADORA DEL CAMINO"

Azken aldian zalantzak sortu dira Azarola Goikoako bidearen izaeraren inguruan. Orain arte herritar guztiek erabili dute errepide hori, baina Azarola Goikoaren jabe berriek uste dute errepide hori ez dela publikoa.

Gaur egun Albizturko Udalak ez duenez Bide Publikoen Inbentariorik, indarrean dagoen legedia jarraituz "Bidearen Aztertze Iharduera" edo "Acción Investigadora del Camino" prozedura izan daiteke bide horren izaera argitzeko modua.

Gaia aztertu ondoren Udalbatzak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Azarola Goikoako bidearen izaera argitzeko "Bidearen Aztertze Iharduera" edo "Acción Investigadora del Camino" prozedura martxan jartzea.

Bigarrena.- Erabaki hau interesatuei jakinaraztea.

8. GALDERA ERREGUAK

- Puro Relajo musika taldearen kontratazioa: Albizturko Festa Batzordeak egindako bileran Puro Relajo musika taldea kontratatzeko aukera proposatu zen eta aurrekontu eskaera egin zitzaien. 3.000 € + BEZ-eko aurrekontua aurkeztu dute, eta diru kopuru handia denez, gaia Osoko Bilkuran aztertzea erabaki da. Nahiz eta diru kopuru handia izan, hautetsien ustez, inguruko beste herrietako esperientzia ikusirik, jende asko erakartzen du talde honek eta kontratatzea erabaki dute.

Osoko bilkura, 21:00tan eman du amaitutzat Alkateak eta bertan azaldutakoa jasoa gera dadin honakoa sinatzen dut.

Albizturren, 2020ko otsailaren 6ean

72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Firmado digitalmente por 72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Fecha: 2023.10.25 12:40:50 +02'00'

OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Firmado digitalmente por OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Fecha: 2023.10.26 09:16:53 +02'00'